

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Fruiz

Aurkibidea

Udalerria: Fruiz

Sarrera



Mungialdea eskualdean dago Fruiz. Sakabanatutako hainbat auzo daude eta herriaren erdigunea Aldai auzoaren ingurua dugu. Aipaturiko Aldai auzoaz gain, Fruizko auzoak honakoak dira: Mandaluniz, Andeko, Olalde, Lotina, Batiz, Botiola, Plakonalde eta Ugane. Arrieta eta Meñakarekin egiten du muga iparraldean; Gamiz-Fikarekin hegoaldean; Arrieta eta Morgarekin ekialdean; eta Mungia eta Gamiz-Fikarekin mendebaldean.

Argazkia: Aldai auzoko herrigunea.

- **Biztanleak:** 469
- **Euskaldunak:** %78,92

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **29**
- Zintak: **28**
- Pasarteak: **63**
- Transkribatutakoak: **9**
- Audioak: **63**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Fruiztarrak berbetan

Hizlariak



Maria Andikoetxea Uriarte (1913)

Etxekoandrea eta nekazaria. Eleizalde auzokoa. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Nikolasa Astorkiza Legarreta-Etxebarria (1921)

Etxekoandrea eta nekazaria, Andeko auzo ondoko Sallobente baserrikoa. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Migel Etxebarria Bastarretxea (1920)

Gomoa baserrikoa, nekazaria eta errotaria. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Brijida Galdona Bilbao (1916)

Etxekoandrea. Batiz auzotiaren ondoan bizi izandakoa, ezkondu arte; gero Andeko auzoan. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Jospin Galdona Bilbao (1919)

Andekoa auzokoa. Sukaldaria izan zen lanbidez, eta Bermeon 42 urte egin zituen. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Andres Gangoiti Elorriaga (1931-2018)

Makatze baserrikoa. Nekazaria izan arren, lantegian ere lan egin izan du. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Dionisio Gangoiti Llona (1911)

Botiola auzoan jaio eta bertan bizi izandakoa. Nekazaria.
"Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Emeteri Garai Lauzirika (1926)

Fruizko kaskokoa. Bermeora joan zen bertako jatetxe batera
sukaldari lanera.



Santa Garai Pinuaga (1911)

Etxekoandera eta nekazaria. Mandaluiz auzokoa.
"Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Braulia Hormaetxe Gerekaetxebarria (1915)

Etxekoandrea eta nekazaria. Bizitza guztian Mandaluiz
auzoan bizi izandakoa."Fruiztarrak berbetan" lanerako egin
zitzaion elkarrizketa.



Eusebio Larragan Legarretaetxebarria (1922)

Fruizko kaskokoa. Hainbat urte Mungian egin zituen
sukaldari lanetan, jatetxe baten jabe izan zelako. Gero
berriro Fruizera itzuli zen.



Timoteo Larragan Legarretaetxebarria (1926)

Fruizko kaskoan jaio zen eta bertan bizi izan da beti.
"Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Jesusa Legarreta Batiz (1916)

Morgarekin mugan dagoen Olagorta baserrikoa. Etxekoandrea eta nekazaria. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Pili Legarreta Goikoetxea (1910)

Etxekoandrea eta nekazaria. Eleizalde auzokoa. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Alejandro Legarreta Uriarte (1918)

Botiola auzoan jaio eta beti bertan bizi izandakoa. Nekazaria. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Martzelin Lekerika Goirizelaia (1911)



Kandido Lotina Torre (1911)

Lotina auzoan jaio eta beti bertan bizi izandakoa. Nekazaria. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Juanita Mallona Llona (1913)

Botiola auzoan jaio eta bertan bizi izandakoa. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Patxo Mandaluniz Isasi (1915)

Morgarekin mugan dagoen Olagorta baserrikoa. Nekazaria. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Mikaela Muruaga Oar (1906)

Lomerika baserrian jaioa. Etxekoandrea eta nekazaria. Bermeon ere bizi izan zen, baina gero berriz Fruizera itzuli zen. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Bartolo Sagasti Hormaetxe (1914)

Fruizko kaskoan jaioa. 24 urterekin Bilbora joan zen, baina berriz ere Fruizera itzuli zen. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Juli Sagasti Hormaetxe (1917)

Etxekoandrea eta nekazaria. Batiz auzokoa. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Karmen Sagasti Hormaetxe (1928)

Bizi guztian Andeko auzoan bizi izandakoa. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Juan Uriarte Agirre (1927)

Nekazaria; bizi guztian Andeko auzoan bizi izandakoa. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Juan Uriarte Legarretaetxebarria (1928)

Nekazaria. Bizi guztian Andeko auzoan bizi izandakoa. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.

Garbiñe Uriarte Muruaga (1936)



Fruizko Lomerike baserrian jaioa. 18 urterekin Bermeora joan zen lanera eta hara ezkondu zen. Hantxe bizi izan da harrezkero. Elkarrizketa bere anaia Jose Luisekin (1932) egin zitzaion, Fruizen.

Jose Luis Uriarte Muruaga (1932)



Fruizko Lomerike baserrian jaiotakoa. Baserriko lanetatik bizi izan da. Ehiztari amorratua. Batez ere hegaztien inguruko informazioa jaso zitzaion. Elkarrizketan bere arreba Garbiñe (1936) ere egon zen.



Juli Uriarte Otazua (1916)

Etxekoandrea eta nekazaria. Bizi guztian Andeko auzoan bizi izandakoa. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.



Angel Uriarte Rementeria (1925)

Plakone baserrian jaioa. Nekazaria, nahiz eta itsasoan ere ibilia izan. "Fruiztarrak berbetan" lanerako egin zitzaion elkarrizketa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Goruetan nola egiten zen

- **Hizlaria(k)**: Sagasti Hormaetxe, Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Uriarte, Jon Andoni
- **Erref**: FRU-001/001

- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Garai batean amamek nola egiten zuten goruetan. Ardatzean batzen zen haria.

Transkripzioa

- Lehenago gure amamak eitten euen, bakixu, harek mantoien kurtzien eukitten zittuzen. Ba, gorue sartu han, imiñi... zera, lanie han sartute, amarreta, ta gorue. Ta gero ardatza eskoiko eskuen, ta eskerragaz goitti(k) koixten euen ta eskoiegaz ha... begittik bueltak emon haridxe eitteko.

- Ta gero ze eitten zenduen?

- Gero galtzardidzek eitten zittuzen /eittentxuzen/ haregaz.

- Ta non batzen zeuen...?

- Ardatzan.

- Ardatzan?

- Ardatzan. Ardatza da haulako... ze esango deutsut... destornilladora be ez, burdiñie da, haulako (botilei kortxoak atarateko tresna bat erakusten deust) burdiñie, haulakoak dekoz, honek baiño zeetxuau e! Ta holan luzie. Ta gero hemen punten deko halan bolie luzenkatara ta hemen eperdidxen deko ba... beste zatitxu bet halan biribiltara imiñdde, urten ez deidxen haridxek. Eta gero honegaz bueltak emoten zittuzen /emotentxuzen/, goikoagaz ezkerregaz goidxen ta behien honegaz.

1.2. Txerria hil osteko beharrak

- **Hizlaria(k):** Sagasti Hormaetxe, Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Uriarte, Jon Andoni
- **Erref:** FRU-001/002
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 00:01:19. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena:** Txerria hiltzen zenean egiten ziren beharrak: buzkantzak, txorizoak... Gatzetan nola ipintzen zen.

Transkripzioa

- Porruek txikittu, kinpulek txikittu, gero harek tosteu. Danak tostetan zien. Ta gero, hurrengo goixien ba.. hotzitan dienien, hurrengo goixien, hasi, ba, nahasteu ta prepareu. Arroza egosi, bezperan eindde imiñi, eta gero harek nahasteu, harek nahasteu ta gero odola, paseu pasadoretik ta odola gero nahasteu. Gero gazi-gazan imiñi ondo eta koipiek be nahaste, danak ondo nahaste, eta gero, ba, buzkantzak ein. Horretxek. Gero betetu.

- Bai, betetu lehelengo.
- Buzkentak zelan [...]?
- Bai.
- Buzkentak ein. Buzkentak eitteko... gero ha masie nahasteu ondo ta gero hestietan sartu enbudoagaz. Eta gero harek uretan galdoztu eitten diez. Ta gero garbittu beste baldatxu baten imiñi ur hotza ta han garbittu, ta gero eskei.
[...]
Gidxerrak aparte, txikittu. Gero gatza emon, salmoatan imiñi.
- [...]?
- Salmoatan.
- Zer da salmoa?
- Berakatzagaz-ta imiñi eta salmoa horixe da, berakatzagaz ha, guk nahastie eitten du txikitu errotatxu baten ta, ta zuen amak-eta eitten dure... imiñi halan berakatz jo-jo eindde imiñi eta atxiñekoa, boltsatan imiñi ta gero hareri erain, gatza emon ta erain. Ta gero nozozera ba erain ein biher deutzazu /enbitzazu/ hareri. Eta gero ikusi gazi-gazan eta...
- Eta zenbat denboran holan eukin?
- Ba segun, batzutan egun bi... hirura ezker nahikua dau.
- Ta gero?
- Gero txorixoak ein.
- Bai, sartu hestietan ta...
- Sartu hestietan ta, ba, txorixoak ein hestiekaz, imiñi makiñen-ta.
- Ta gero txorixoak [...] ze ein biher izeten zan?
- Eskei.
- Eskei eta...?
- Eskei. Lelengo amarreu ein biher dozuz trozoak-trozoak eta gero eskei, imiñi paluek eta eskei.
- Eta eskei non eitten zan, edonon? edo leku espezialetan?
- Airoso dauen lekuen, sutie handidxe bada, sutien, sue eitten bazu. (Nik haur eitten doz, karrajuen).
- Ta gero batu, ezta?
- Gero siketan dienien, oridxotan imiñi edo... oin badakizu zelango [...] dauzen...
- Baiña lehenao nun...?
- Oridxotan.
- Oridxotan beti?
- Ta koipetan be bai batzuk, e.
- Koipetan? Ta zelango zeratan eukitten zien? Zelango lekuetan?
- Lapiko lurrezkoatan [imintten zien].
[...]
- Bai, hestiena.
- Hestiek garbittu. Lehelengo hori ein biher iziten zan.
- Lehelengo biherra, ezta?
- Klaro! Hori [...], hori [...] hestiek... buzkentak ein orduko.
- Ein orduko, hasikeran.
- Hasikeran ein [...] zuk hori, hestiek garbittu ta. Eta gero, ba, gazun-askan imini. Gatza emon eta bakotxa bere zeratan, urdeidxe ta pernillek eta hazurrek ta horrek ba gero gazun-askan imin biher dittuuz /bitxuz/, emon gatza ta.
- Ta zelan imintten dire gazun-askan?
- Harek imintten dire gatzagaz; tapeu-tapeu eindde. Hazurreri ez, hazurreri gitxiau emoten jakie.
- Hazurreri gitxiau?

- Hazurrei gitxiau. Hazurrek ez die bihar ta. Ta ostantzien bestiek gatzagaz tapeu-tapeu eindde. Eta gero harridxek ganien imiñi.

- Harrixe ganien, pixue...

- Pixue... gogortu daittezan. Eta solomoak eta horrek ba gatz gitxitxuau. Oin uretan imitten dittuez, lehenau gatza ta gatz apurtxu bategaz. Halan baldan aparte imiñitten zien ta gatz apurtxu bategaz. Ta hareri be, solomoari ta hareri be, saiheskidxeri ta hareri be ba... berakatza, salmoa.

- Ta zenbat denporagarrenien ataten zien?

- Harek... ba... harek be egun bi... hor ingeru.

- Egun bi edo hille bi?

- Ez, ez, ez, ez, solomoak ez.

- Solomoak. Baiña bestiek, pernillek eta?

- Bestiek, pernillek e..., bai hillebete t'erdi bai edozein moduten be, edo hille bi, segun.

- Ta gero ze itten jakien hareri?

- Gero harek lehenau eitten zien uretan apur bet garbittu eta gero eskei. Apur bet siketan dienien, piper gorritxue emon ta halantxik...

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Emiliñen kontuetariko bat

- **Hizlaria(k)**: Larragan Legarretaetxebarria, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Uriarte, Jon Andoni
- **Erref**: FRU-006/002
- **Iraupena**: 0:00:15. **Hasi**: 00:03:05. **Bukatu**: 00:03:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Emilin izeneko herriko pertsonaia baten inguruko pasadizoa.

Transkripzioa

(Emilin herriko lagun barregarri bat zan eta gaixotasun larri bategaz egoan. Orduan, abadea eroan eutsen)

Ta abadie eroan eutsien, Don Martin. Ta han, Don Martin joan ta han ba... errezetako:

- Emilio, erreze ein biher dozu /bizu/.
- E? Errezeu ala arnasie hartu, zein izengo da biharrau?

2.2. Bizarginari eta zapatariari gertatutako pasadizoa

- **Hizlaria(k)**: Larragan Legarretaetxebarria, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Uriarte, Jon Andoni
- **Erref**: FRU-006/003
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:04:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena:** Bizarginari eta zapatarari abadearekin gertatutako pasadizoa.

Transkripzioa

Iñazio ta Emilio, barberue ta zapaterue. Ta astelehenak eitten zittuezan jai. Ta joaten zien Bilbora ba... erreminttek zorroztu, edo narrue erosi edo horrek eitten. Autobusien. Etor zen abadie, Don Isidoro, ta han sartu zen autobusera ta pregunte eutsien e... ia nora doazen, ta Emiliok esan eutsenen:

- Nora? Narruten!

- Hori da errespetoa! -esan eutsen abadiak- Hori de errespetoa! Lotsatu ez zara eitten hori esaten?

- Baa! Guk narrue biher du te, narruten goaz gu!

2.3. Eguraldi txarra zeneko pasadizoa

- **Hizlaria(k):** Garai Lauzirika, Emeteri
- **Elkarrizketatzailea(k):** Uriarte, Jon Andoni
- **Erref:** FRU-007/001
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Eguraldi txarra zenean ur bedeinkatua eta kandela ipintzen ziren, "parte txarrak" uxatzeko.. Eguraldi txarra zen batean Emiliok amari esandakoa.

Transkripzioa

Bueno, denpora txarra eon zan, total txarra; trunbuiek eta oiñeztuek eta. Eta, ba, ama koittedie ba... ikeatu eitten zan ba. Ta semie berandu etorritte ohian. Beranduetararte hortik urtenda [...]. Eta ama ba... hartu [...] inkeu kandelatxue ta, antxiñe holan ixetan zan ta, kandelak bixtute holan imiñi. Ur bedeinketue hartute holan e... etze guztidxen beittuten urten deidxien parte txar guztidhek eta. Etzie bedeinketute, Santa Barbarari zera emoten. Ta bera esaten:

-Bai ama, danak atako dozuz baia hau hamen dauenak ez deitsu /etzu/ urtengo ariñik arin ba!

2.4. Emilin eta fraidearen pasadizoa

- **Hizlaria(k):** Larragan Legarretaetxebarria, Timoteo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Uriarte, Jon Andoni
- **Erref:** FRU-008/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena:** Emilinek limosna batzen zebilen fraidearekin izandako pasadizoa.

Transkripzioa

Emilin ba... Emiliñek zapateru eitten eben Olabarrin biher ba, zeranien, Luis taberneruenien. Eta, bueno, han biharrien dabillega, egun beten fraille bat ha..., lehenau frailliek ibiltten zien batzien ba ta..., fraillie batzien joanda han. Ta bertakoak, ba, solotik... biherrien ba. Ta Emiliñek urten eutsen, da oño! Emiliñeri esan eutsen ba frailliek ba limosnie batzien dabillega ta...:

-A, bai, ensegida. Ez dauz u... hemen, baia soloan dauz de. Untxe ensegida. Esango dotsiet eta etorko jatzuz. Ni hemen bihargiñe naz, e. Ni ez naz bertokoa, ta bihargiñe naz ta... Ba... eutsi hau umie.

Umie negarrez han ta, umie eutsitte:

-Eukixu hau umie apur beten -esan eutsen fraillieri- errekadue eitten noa ba... hareri solora ta.

Ta fraillie umie euki eziñik haulan. Emiliñek ha emon eutsenien... kittu! [...] Fraillie umie euki eziñik. Ta Emiliñek eskape eutsen ta kittu! Gero, negarretik-eta, umien negarretik-eta etzekoak entereute zaratatik etorri artien, fraillie han.

2.5. Bidegurutzeetan olio usaina

- **Hizlaria(k):** Mallona Llona, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Uriarte, Jon Andoni
- **Erref:** FRU-010/001
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Antzinako sinesmenak. Bidegurutzeetan olio usaina egoten ei zen. Purgatorioko arimei errezatu eta kendu.

Transkripzioa

- Gu hemeti joaten giñen Fruxera, egunero mezara. Gazteri dana oniño. Eta hor eskola ondoan kurtzie dau ba... danatara. Eta goxien, holan bakarrik joan ta oridxo usiñe. Itzela! Errezeu purgetoridxoko arimeri aitte-gure bat eta kendu.

- Eta hortxe kurtzien beti ixetan zan? Edo...?

- Bai. Eta goiko kurtzien be bai.

2.6. Ideltxoak (iratxoak)

- **Hizlaria(k):** Mallona Llona, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Uriarte, Jon Andoni
- **Erref:** FRU-010/002
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:00:21. **Bukatu:** 00:01:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

- **Laburpena:** Antzinako ipuinak; "ideltxoak" (iratxoak).

Transkripzioa

- Dxeuriko alabie geure ama be ixen zan ba. [...] Eta geubien urten da hemetik. Eta ez dakit ba, berton nonon ala gero presente jakon ba. Horixe ez dakitt, amak esaten euen, baia ahaztute nau. Kontxille gorri bet burutik. Igual euridxe ixenda emon eingo eutsien halangoren bat? Ze lehenau ez zan eoten guardasolik. Eta Dietxetan hor o..., horrek euki euen famie itzela seguru! Hori Goma baiño harau dau, Jose Mielen e..., a..., lantzarra paseta. Eta han zertu zen antza; baia holango zeran batzuk urtetan [ideren]. Nik ez daitt zelango ixena be esaten euen. Lamiñak ez. beste izen bat.

- Ideltxoak.

- E?

- Ideltxoak.

- Ideltxoak! Edo holango...

- Bai, ideltxoak, ideltxoak.

- Bai. Eta buelta ta buelta ta buelta geu guztidxen. Ta akabuen San Juanen hurrungo egunien edo, beran burue ezetu. Ta artien antza..., eztaki nondi dabillen.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gariaren inguruko lanak (FRU-002/002)

Garia eraiten denetik aurrerako prozesua.

2. Dietxetako sorginen inguruko kontuak (FRU-003/001)

Dietxetako sorginen inguruko kontuak.

3. Laminen inguruko kontuak (FRU-003/002)

Laminen istorioak. Lamiñegane iturriko kontuak.

4. Txahala hiltzen zeneko lanak (FRU-003/003)

Zezipa etxean egiten zuten, auzoko batzuen artean. Lehenbizi, auzoko batek txahal bat aukeratu eta hiltzeko ekartzen zuen. Harakinak txahal hil ostean, emakumeek odola, seboa eta hesteak banatzen zituzten, odolosteak egiteko. Iluntzean gizonak okela bila etortzen ziren. Txahalaren ordainketa San Tomasetan edo San Andresetan egiten zen.

5. Gerra garaiko bizipenak (FRU-004/001)

Gerra garaiko bizipenak. Etxetik irteten zirenean, tiroak. Gero kanoikadak. Etxetik alde egin behar. Bikote bakoitzak ganadu pare bakarra eduki zezakeen. Beraiek bi pare eduki zituzten, bera ere ordurako ezkondata zegoelako. Bi ume zituen eta senarra frontean. Ez zuen haren berririk izan denbora luzean. Burdinazko gerrikoa.

6. Gerra garaiko bizipenak (FRU-005/001)

Gerra garaiko bizipenak. Arriskua zegoela-eta, etxetik alde egiteko esan zieten. Nondik nora ibili ziren. Burdinazko gerrikoa.

7. "Adibiñadore" batzuen inguruko kontuak (FRU-006/001)

"Adibiñadore" batzuen inguruko kontuak.

8. "Labasua" nola egiten zen; artoa (FRU-006/004)

"Labasua"ren inguruko azalpenak. Nola prestatzen zen, nola garbitu... Eta gero artaburua nola erretzen zen. Erre ostean, jo, garandu eta errotara. "Arto-labakoa" eta arto-surtekoa".

9. Pasio "tratantie"; "naparreridxe" (FRU-007/002)

Pasio "tratantie"ri buruzko kontuak. Hark ekartzen omen zituen gaixotasunak. "Naparreridxe".

10. Ganadu ermandadearen inguruko azalpenak (FRU-009/001)

Auzokoen artean zuten ganadu ermandadearen inguruko azalpenak. Ganadu bakoitza baloratu egiten zuten. Orduan ere baziren tranpak egiten zituztenak. Batzarrak.

11. Ikazkintzaren inguruko azalpenak (FRU-009/002)

Ikazkintzaren inguruko azalpenak.

12. Soldadutzako eta gerrate hasierako bizipenak (FRU-009/003)

18 urterekin soldadu joan zen. Ferrolen egon zen. Gero Cadizko kuartel batera boluntario joanez gero sei hilabete kenduko zizkietela eta hara joan zen. Hamahiru hilabete etxera etorri barik. Uztail hasieran lizentziatu eta berehala gerra hasi zen. Gerra hasierako bizipenak.

13. "Letanidxe" San Migeletan (FRU-010/003)

Antzinako sinesmenak. San Migeletan, gauean, "letanidxe".

14. "Salutadoriek" (FRU-010/004)

Antzinako sinesmenak. "Salutadoriek" zer diren.

15. Arropak zelan garbitzen ziren (FRU-011/001)

Arropak zelan garbitzen ziren.

16. Fruizko erromeriak (FRU-011/002)

Fruizko erromeriak. Mutilek "mesedez" eskatzen zuten dantza egiteko.

17. Goruetan nola egiten zuten (FRU-011/003)

Linua (lihoa) hartzen zen, sikatu eta jo. Kardatu eta haria egin. Ardatza. Goruetan nola egiten zuten. Kirrua. Harekin izarak egiten ziren.

18. Beti etxetik kanpora, neskame lanetan (FRU-012/001)

Umetako kontuak. Ume-zain ibili zen. Gero etxera etorri eta aitak etxean erakutsi zion eskola pixka bat. Beti kanpoan ibiltzen zen, ume-zain edo neskame. Eskola ahal zuen moduan ikasten zuen, tarteka. Nondik nora ibili zen. Gerrako bizipenak.

19. Etxeko errentaren inguruko kontuak (FRU-013/001)

Etxeko errentaren inguruko kontuak.

20. Eskolatik bost pezetako ordainagiria (FRU-013/002)

Ikasteko gogoia zuen eta eskolara joaten zen. Behin andereñoak bost pezetako ordainagiria eman zion. Beste batzuei ez zien kobratzen.

21. Hildakoaren arima sentitu ei zuen izebak (FRU-013/003)

Neska gazte bat hil egin zen. Haren arima-edo etorri zitzaioela esaten zuen bere izebak.

22. Arropak garbitzeko, sutako hautsa (FRU-014/001)

arropak nola garbitzen ziren, tina handietan. Sutako hautsa botatzen zen arropak zuritzeko; gainera ur beroa.

23. Soldaduak zetoze eta Bermeora ihesi (FRU-014/002)

Gerra garaiko bizipenak. Soldaduak zetoze eta Bermeora joan behar zirela esan zien osabak. Hara joan ziren. Etxera itzuli eta dena utzitako moduan aurkitu zuten.

24. Haria egiteko prozesua (FRU-014/003)

Haria egiteko prozesua; garbitu, sikatu, "altziketu", "txarrantxiagaz" pasatu... eta haria egin. Gero galtzerdiak. Gorua.

25. Lihozko izarak (FRU-014/004)

Lihoa (linua). Kirrua. Lihozko izarak nola egiten ziren.

26. Herrien arteko tirabirak (FRU-015/001)

Fruizko kuadrilla batek egunkarian erronka bota omen zuen. Busturikoek erantzun zieten. Arrietan egin zuten zita San Martinetan. Dantzan zebilen mutil batengana joan eta liskarra sortu zuten. Gero denak "errestan".

27. Lamiak iturrian (FRU-016/001)

Etxean aitak eta amak kontatzen zuten lamien inguruko istorioa.

28. Sorginek katuekin lotura (FRU-016/002)

Sorginek katuekin ei zeukaten komunikazioa. Sorginen inguruko istorio bat.

29. Anaiaren heriotzaren inguruko sinesmenak (FRU-016/003)

Antzinako sinesmenak. Bere anaia Patxok hiru urte egin zituen gaixorik. Ospitalean medikuek ez zioten ezer topatzen eta aitak Mundakara eraman zuen "astuañe" (igarle batengana). Haren heriotzaren inguruko kontuak.

30. Sorginen inguruko kontuak (FRU-016/004)

Sorginen inguruko kontuak.

31. "Labasua"; arto-lanak (FRU-017/001)

"Labasua" nola egiten den. Lehenengo labea garbitu, gero otea sartu eta sua piztu. Harria zuritzen denean egoten da prest. Gero, garbitu ipizkiarekin. Arto-opilak. Artoaren inguruko lanak; errotara; kaxetan gorde.

32. Ganaduen gaixotasunak (FRU-018/001)

Ganaduen gaixotasunen inguruko azalpenak. "Naparreidxe"; "birikixetako". Errapeetako gaitza kareharriarekin sendatzen zuten.

33. Karea nola egiten zen (FRU-018/002)

Karobia nola prestatzen zen karea egiteko. Otea, harria. Karea zertarako erabiltzen zen gero.

34. Gernika nork erre zuen (FRU-019/001)

Gerra garaiko bizipenak. Vitoria sarjentuarekin eta kapitainarekin izandako elkarrizketa. Ea Gernika nork erre zuen zehatz ba ote zekien galdetu zioten. Berak emandako erantzuna.

35. Ume txikiek begizkoa (FRU-020/001)

Ume txikiek negar asko egiten zutenean begizkoa zutela pentsatzen zen. Begizkoa kentzeko zer egiten zen.

36. Abadeak "untziñoa" nola egiten zuen (FRU-020/002)

Elizakoak ekartzera zetorrenean abadeak "untziñoa" (oliadura) nola egiten zuen.

37. Tximeleta antzeko sorginak (FRU-020/003)

Lehenago tximeleta antzeko sorginak zeudela esaten zen. Orratzen kaxatik irteten ei ziren norbait eztabaidan sumatuz gero.

38. Arrebak madarikazioa (FRU-021/001)

Bere arreba batek madarikazioa omen zuen. Hura kentzeko "adibiñadorea" rengana joan zen. "Marti-oillarran kukurrukua".

39. Jainkoaren erakustaldia (FRU-022/001)

Behin gizon bati zorroztarria erori omen zitzaion. Ikusi egin ei zuen nora erori zen eta "Topekotzut Jangoikoak gure ezpadeu be!" esan ei zuen. Baina ezin inola ere aurkitu.

40. Garai bateko baserriko bizimodua (FRU-022/002)

Garai bateko baserriko bizimoduaren inguruko azalpenak. Idiekin lan egin izan du beti soroan. Hiru etxalderen ardura zuen berak. Aurrekoek laiekin lan egiten zuten, auzolanean. Artoa eta indaba. Bizimodua arrautzekin ateratzen zela garai batean dio. Aldaketak baserrian eta bizimoduan.

41. Sorginak txerri bihurtuta (FRU-022/003)

Iluntze baten Paulino izeneko gizona ebakita zegoen belar pila bat ekartzera zihoala, txerri batzuk agertu zitzaizkion bidean. Sorginak edo lamiak ei ziren.

42. Errotaren inguruko azalpenak (FRU-023/001)

Errotaren inguruko azalpenak.

43. Saskigilearen lanak (FRU-023/002)

Saskigilearen lanak. lehenengo, gaztaina-egurra putzuan edukitzen zuen beratzen. Gero zumitzak nola ateratzen ziren.

44. Bekatua abadeari konfesatu behar (FRU-024/001)

Bermeora joan ziren batean antzara bat lapurtu zuten. Lotuta laga zuten, baina gauean euri handiak egin zituen eta antzara hilda aurkitu zuten. Gero egindakoa abadeari konfesatu behar!

45. San Migelgo ermitaren inguruko istorioa (FRU-024/002)

Aurrekoek San Migelgo ermitaren inguruan kontaktzen zuten istorioa. San Migelen etxe bakar bat ei zegoen. Adineko bi pertsona bizi ei ziren bertan eta elkarren gainean hilda aurkitu ei zituzten.

46. Saskigilearen lanak (FRU-025/001)

Saskigilearen lanak. Basora joan eta gaztaina-egurra ekarri. Gero etxean sutan berotu "astillak" egiteko. Saskiaren ipurdia egiteko listoiekin gurutzeak egin. Saskia egiteko prozesua.

47. Etxean egindako ogi zuria (FRU-026/001)

Errazionamendu garaian, ogi beltza bakarrik zegoenez, etxean egiten zuten ogi zuria. Nola egiten zuten azaltzen du.

48. San Juanetako ohiturak (FRU-026/002)

San Juanetako ohiturak. Gurutzeak ipintzen ziren. Abadearekin izandako elkarriketa.

49. Zaintiratua sendatzeko erremedioa (FRU-026/003)

Zaintiratua sendatzeko erremedioa: "Santietun, san urutu. Sana beran lekuen sartu".

50. Begizkoa nola kendu umeari (FRU-027/001)

Umea emakume batengana eraman zuten begizkoa kentzeko. Ze erremedio egin zuten.

51. Gerra aurretik "erregeterak" eta "pasigak" plazan (FRU-027/002)

Mungiako plazara saltzera. Gerra aurreko eta osteko funtzionamendua. Gerra aurretik "erregeterak" eta "pasigak". "Pasigak" nortzuk ziren azaltzen du.

52. Lixiba nola egiten zen (FRU-027/003)

Lixiba nola egiten zen. Lexikoa: "arpilerie"; "errandonie"; "ur arrabidxadue".

53. "Salutatorie", zazpigarren semea (FRU-027/004)

"Salutatorie": denak mutilak direnean, zazpigarren semea izaten ei da. Mingainean gurutzearekin jaiotzen ei zen eta gaixoak sendatzeko dohaina ei zeukan.

54. Sorginak tximiniatik gora (FRU-027/005)

Sorginak tximiniatik gora joaten ei ziren "Sasi guztidxen ganeti ta hodei guztidxen azpitti" esanda. Behin gizon batek sorginen esaldia entzun ei zuen, baina gero, nahastuta, alderantziz esan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com